

4. eranskina. Taldekideen lana ebaluatzeko errubrika.

Maila	Oso ona (3)	Ona (2)	Oinarrizkoa (1)	Baxua (0)	
Informazioa bilatzea	Ikasten ari denari buruz informazioa aurkitzen du, zenbait formatu eta iturritan, idatzizko zein digitaletan.	Ikasten ari denari buruz informazioa zenbait iturritan aurkitzen du.	Ikasten ari denari buruz informazioa iturri bakarrean aurkitzen du.	Ikasten ari denari buruz informazioa ez du aurkitzen.	% 30 (x3)
Iritzia	Aurkitutako informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du, eta bere iritzia zuzen argudiatzen du.	Aurkitutako informazioa irizpide kritikoz aukeratzen du, gehienetan zuzen interpretatzen du, eta gehienetan bere iritzia zuzen argudiatzen du.	Aurkitutako informazioa irizpide kritikoz aukeratzen du askotan, baina batzuetan ez du zuzen interpretatzen eta askotan bere iritzia ez du zuzen argudiatzen.	Aurkitutako informazioa ez du irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen edota ez du bere iritzia argudiatzen.	% 40 (x4)
Adierazpenaren zuzentasuna	Ikasitako gaiei buruzko azalpenetan, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiltzen du, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.	Ikasitako gaiei buruzko azalpenetan, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiltzen du, edota adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du gehienetan.	Ikasitako gaiei buruzko azalpenetan, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiltzen du, edota adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du batzuetan.	Ikasitako gaiei buruzko azalpenetan, ez du hizkuntza zientifikoa zuzen erabiltzen, eta ez du adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten.	% 30 (x3)
Oharra: taldeari aipamen bat egin nahi izanez gero idatzi hemen.				KALIFIKAZIOA	/30